



IRAKASKUNTZA-GIDA 2011/12

Ikastegia 160 - Gasteizko Gizarte Langintzako Unibertsitate Eskola

Zikl. Zehaztugabea

Plana GTRABA10 - Gizarte Langintzako Gradua

Ikastaroa 2. maila

IRAKASGAIA

Gizarte Baliabideen Behatokia

ECTS kredituak: 6

GAITASUNAK / AZALPENA / HELBURUAK

AZALPEN LABURRA:

Gizarte-errealitatearen ondorioz sortutako behar, gabezi eta problematikei erantzuteko dauden gizarte-baliabiden ezagutzarako lehenengo gerturapen bat eskaintzea da irakasgai honen helburua. Honetarako gizarte-babes sistema nagusienak aztertu egiten dira. Gizarte-baliabideen azterketak gerturapen teoriko-praktikoa eskatzen du. Era berean, komunikazio-trebetasunak ere lantzen dira, harreman interpertsonaletarako habileziak bereziki.

KONPETENTZIAK:

1. Gizarte-babes sistema nagusien antolaketa, egitura orokorra eta gizarte-baliabideak ezagutu eta identifikatu.
2. Gizarte-babes sistema nagusien objektua, esku-hartze mekanismoak eta horniketa moduak ulertu.
3. Gizarte-babes sistema nagusiek gizarte-arazoak dituzten populazio-sektoreekiko dituzten gatazka eta mugak identifikatu.
4. Gizarte-babesaren sarbidean dauden bazterketa mekanismo eta diskriminazioa detektatu.
5. Informazio iturri ezberdinak erabiliz gizarte-baliabideen gida bat egiten ikasi.
6. Harreman interpertsonalerako trebetasunak eskuratu.

GAI ZERRENDA

- I. Gaia. Irizpide ezberdinen arabera gizarte-baliabideen sailkapena:
 - Erakunde motak: administrazio publikoa, hirugarren sektorea, enpresa pribatua.
 - Kudeaketa ereduak: zuzena, zeharkakoa (ez-zuzena).
 - Gizarte-babes sistemak: gizarte-zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, diru-sarreraren bermaketa, etab.
- II. Gaia. Gizarte-babes sistema nagusiak eta bertan dauden gizarte-baliabideak:
 - Gizarte-Zerbitzuak
 - Osasuna
 - Hezkuntza
 - Diru-sarreraren bermaketa
 - Etxebizitza
 - Formakuntza eta enplegua
 - Justizia
- III. Gaia. Ahozko eta idatzizko komunikaziorako trebetasunak, abilezi interpertsonalari arreta berezia eskainiz.

IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	15		45						
Ikaslearen ikasgelaz kanpoko jardueren ord.	22,5		67,5						

Legenda: M: Maistrala S: Mintegia GA: Gelako p. GL: Laborategiko p. GO: Ordenagailuko p.
GCL: P. klinikoak TA: Tailerra TI: Tailer Ind. GCA: Landa p.

Argibideak:

- Hitzaldiak, konferentziak eta tailerrak.
- Solasaldiak
- Ariketa praktikoak
- Bisitak
- Informazio bilaketa
- Talde txikietan egindako lana

EBALUAZIOA

- Praktikak (ariketak, kasuak edo buruketak)
- Taldeko lanak
- Lanen, irakurketen... aurkezpena



Argibideak:

NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK

BIBLIOGRAFIA

Oinarrizko bibliografia

1. Trevithick, Pamela (2002): Habilidades de Comunicación en intervención social. Madrid. Narcea.
 2. Bermejo, José Carlos (2008): ¿Competencias blandas en la relación profesional?, Revista de Servicios Sociales y Política Social, 83, 87-108.
- * Diversas guías de recursos sociales

Gehiago sakontzeko bibliografia

Aldizkariak

SIIS Dokumentazio eta ikerketa zentroak argitaratutako Zerbitzuan Aldizkaria.
Revista del Tercer Sector Aldizkaria.
Documentación Social Aldizkaria.

Interneteko helbide interesgarriak

www.sis.net SIIS Dokumentazio eta ikerketa zentroaren web orrialdea.